ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2025eko maiatzaren 30a, ostirala • 60 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**17/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 27koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta 2026-2027rako deialdia**

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko apirilaren 12ko osoko bilkuran, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzeko apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua onetsi zuten (aurrerantzean, 9/2017 Foru Araua); haren denbora eremuak 2018. eta 2023. urteen bitarteko aldia biltzen du, biak barne. Epe hori 2027ra arte luzatu da, Arabako Lurralde Historikoko 2025erako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 17ko 18/2024 Foru Araua onetsiz, zazpigarren xedapen gehigarrian.

9/2017 Foru Arau horretan Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Laguntzen Programari dagozkion xedapenak arautzen dira, eta programa horren kargurako laguntzak emateko arauak eta irizpideak zehazten dira. Era berean, adierazten da 9/2017 Foru Arauak ezarritako erregulazio orokorra programa bakoitzean osatuko dela laguntza lerro hau kudeatzeko beharrezkoa den erregulazio espezifikoarekin.

Zehazki, 9/2017 Foru Arauaren Azken Xedapenetako Lehenengoan, Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio administrazio-xedapen hori garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen osagarriak emateko.

Horri dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 8. artikuluan dirulaguntzak eman aurretik laguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi beharko direla jasotzen dute, eta, 16. artikuluan, Gobernu Kontseiluari esleitzen diote dirulaguntzak onesteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan.

Dirulaguntzak emateko prozedura hasteari dagokionez, 9/2017 Foru Arauaren 12. artikuluaren lehen apartatuan ezartzen da organo eskudunak onetsitako deialdi bidez egingo dela.

Ondorioz, 9/2017 Foru Arauan eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuz, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura laguntzak ematea arautuko duten oinarri orokorrak aurkezten dira, bai eta 2026-2027 aldiari dagokion deialdia ere.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude.

Foru dekretua egiteko, kontuan eduki dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia ere.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago bai antolamendu juridikoan sartzea, bai ematen duen organoa gaitzea. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatu den arauketak, bere izaera dela-eta, ez dakar zama administratibo osagarririk edo alferrikakorik, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Horrenbestez, nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura norgehiagoka bidez laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak. Aipatutako oinarriak dekretu honen I. eranskinean jaso dira.

Bigarrena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura norgehiagoka bidez laguntzak emateko 2026-2027ko deialdia. Deialdia dekretu honen II. eranskinean jaso da.

Hirugarrena. Onespena ematea eskaerak izapidetzeko eskaera inprimakiari eta inprimaki osagarriei. Inprimakiak dekretu honen III. eranskinean jaso dira.

Laugarrena. Dirulaguntza konpromisoak, 39.975.610,00 euro guztira, Arabako Foru Aldundiaren 2026. ekitaldirako aurrekontuan indarrean dagoen aurrekontu taldeko "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27" partidaren kontura egingo dira. Hona hemen 2026. eta 2027. urteetarako xehakapena:

— 19.936.805,00 euro 2026ko urtean.

— 20.036.805,00 euro 2027ko urtean.

Bosgarrena. Hasiera batean 300.000,00 euro erreserbatzea, deialdi horren barruan diruz lagundutako obrei dagozkien ordainsari teknikoen emakidari aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuan indarrean dagoen "10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen 2026-27 Foru Plana" aurrekontu partidan, 2026 eta 2027 urteetarako, honako banakapen honekin:

— 150.000,00 euro 2026ko urtean.

— 150.000,00 euro 2027ko urtean.

Era berean, beharrezkoak izan daitezkeen zabaltzeak baimentzen dira.

Hori guztia, 9/2017 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeinaren arabera diruz lagundutako obren ordainsari teknikoei dagozkien kostuak finantzatu ahal izango baitira.

Seigarrena. Dirulaguntza horiek ematea eta erreserba hori Arabako Lurralde Historikoaren 2026ko eta 2027eko aurrekontuetan kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da eta hari egokitu beharko zaio.

Zazpigarrena. Aurreko xedapen zatian adierazitako kopuruak gorabehera, ekitaldi bakoitzerako urteko kredituaren benetako zenbatekoa 9/2017 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera xedatutako horniduraren mende egongo da.

Zortzigarrena. Deialdietan kontrakoa adierazten ez bada, ez da aplikatuko 9/2017 Foru Arauaren 12. artikuluaren azken paragrafoan aipatzen den ezeste arrazoia.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bederatzigarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea diruz lagundutako jarduketak izapidetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Hamargarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hamaikagarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 27a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren foru diputatua*
*LAURA PÉREZ BORINAGA*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*
*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*

## I. ERANSKINA

**Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura norgehiagoka bidez laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak**

**1. Xedea eta aplikazio eremua**

1.1. Dekretu honek finkatzen ditu Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.

1.2. Hauek dira laguntza lerro honen kontura finantza daitezkeen gaiak:

a) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluan (“Obren eta zerbitzuen sailkapena”) jasotako obrak eta zerbitzuak, bai oinarrizko azpiegiturakoak, bai ekipamendu eta zerbitzuetakoak.

• Urbanizazio edo oinarrizko azpiegiturako obretan sartutako ekipamendu jarduketa osagarriak (eskudelak, zakarrontziak, markesinak, bankuak, hiri hondakin solidoak biltzeko sistemak lurperatzea edo ezkutatzea, lorategiak, etab.) joko dira oinarrizko azpiegiturako obratzat. Urbanizazio edo azpiegitura obretan sartutako ekipamendu jarduketak osagarriak direla ondorioztatuko da jarduketa horiei dagozkien diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren zenbatekoa obraren diruz lagundu daitekeen aurrekontu guztiaren ehuneko 25 baino gehiago ez denean. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak (moduluak, gehienezko azalerak, etab.) zehazteko arauak eta jarduketa osagarri bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko aplikatu behar den dirulaguntza ehunekoa zehaztekoak 9/2017 Foru Arauan ekipamendukotzat jotzen diren mota bereko obretarako ezarritakoak izango dira.

• 9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluaren d) apartatuko 1. puntuan jasotako salbuespena aplikatzeko, dagozkion deialdietan arrazoizkotzat jotzen diren inbertsio kostuak balioesteko metodologia ezarriko da.

b) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundutako obren ordainsari teknikoak.

• Idazketa ordainsaritzat hartuko dira gauzatze proiektuak edo memoria baloratuak idazteari dagozkionak, aurretiazko azterlanak, segurtasun- eta osasun-azterlanak edo dokumentu horiek idazteko beharrezkoa den beste edozein azterlan barne.

• Zuzendaritzako ordainsaritzat hartuko dira obra zuzendaritzei, obra gauzatzeko zuzendaritzei eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeari dagozkienak.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**2. Printzipio orokorrak**

2.1. Ematen diren dirulaguntzak 9/2017 Foru Arauaren 3. artikuluan ("Printzipio inspiratzaileak") jasotako printzipio inspiratzaileen arabera kudeatuko dira.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 7. artikuluan jasotako printzipio orokorrak aplikatuko dira.

2.2. Dirulaguntza hauen onuradun diren toki erakundeek Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan jasotako printzipio orokorren arabera bideratu behar dituzte beren jarduketak, eta lege horretan esleitutako eskumenen eta eginkizunen arabera dagozkien betebeharrak bete. Zehazki, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean, aipatutako legegintzako dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunaren betebehar hau ezarri behar da: prestazioa egitean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra, kontratuen legeriarekin bat etorriz, baldin eta organo eskudunak ezarri badu kontratazioan neurri hori aplikatu behar dela.

2.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko espazio seguruak sustatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluaren 1.b) apartatuan jasotakoaren arabera, eta Arabako herriguneetan egoiliar guztientzat ingurune seguru eta inklusiboak bultzatzeko, laguntza lerro honen babesean eskatzen diren jarduketen dokumentazio teknikoan, hala badagokio, puntu kritikoak edo arrisku puntuak identifikatzeko eta horiek ezabatzeko irtenbideak proposatzeko ahalegina egingo da.

**3. Erakunde onuradunak**

3.1. Erakunde onuraduntzat hartuko dira 9/2017 Foru Arauaren 4. artikuluan adierazitakoak ("Toki erakunde onuradunak"), baldin eta oinarri arautzaile hauetan eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoak ere.

3.2. Ezin izango dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau-hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako kasuetan daudenak ere.

**4. Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzen zenbatekoa**

4.1. Eman beharreko dirulaguntzak Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren finantza zuzkiduraren kargura finantzatuko dira, bai urteko zuzkiduraren kontura, bai kasuan kasuko aldietako konpromiso kredituen kontura, edo xede horretarako gaitu litezkeenen kontura.

4.2. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura eman beharreko laguntzak 9/2017 Foru Arauaren 11. artikuluan ("Laguntzaren zenbatekoa zehaztea") eta 18. artikuluan ("Behin betiko dirulaguntza finkatzea eta ordaintzea") ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

4.3. Laguntzaren zenbatekoa zehazteari dagokionez, honako berezitasun hauek ezartzen dira:

a) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluaren 2.2.bis apartatuan aipatutako desjabetze gastuetarako, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa ehuneko 90 izango da. Ehuneko hori diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatuko zaio, eta zenbateko hori eskabidearekin batera aurkeztutako desjabetu beharreko lurzatien balorazioaren berdina izango da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Desjabetze gastuei dagokienez, desjabetutako eremu edo azaleren ordainketen ondoriozko gastuak soilik lagundu ahalko dira diruz, eta sortzen diren bestelako gastu guztiak baztertuko dira, hala nola kudeaketa gastuak, profesionalen ordainsariak, okupazio azkarrak eragindako kalteak etab.

b) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluko 2.4 apartatuan aipatutako zolatze jarduketetarako, 9/2017 Foru Arauaren I. eranskineko I. kapituluko 3. taulan jasotako “Galtzada harrizko hormigoia (BIA, BIC)” aleko prezioa araudi bereziak hala eskatzen duenean soilik aplikatuko da.

c) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluko 2.8.2 apartatuan aipatzen diren elektrizitate hornidurei lotutako lurpeko kanalizazioen jardueretarako, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa izango da artikulu beraren 2.8.1 apartatuan telekomunikazioen, gasaren edo energia berriztagarriko sistemek sortutako produktuen eta argiteria publikoaren etxez etxeko hornidurari lotutako lurpeko kanalizazioetarako ezarritako bera, hau da, ehuneko 90.

d) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluko 2.13 apartatuan aipatzen diren irisgarritasun unibertsalerako hirigintza- eta arkitektura-oztopoak kentzeko edo ezabatzeko obretarako, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa ehuneko 100 izango da.

Irisgarritasun unibertsalerako hirigintza- eta arkitektura-oztopoak kentzeko edo ezabatzeko obratzat hartuko dira Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legera eta hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretura egokitzeko xedea dutenak.

e) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluaren 3.12 apartatuan aipatzen diren hiri altzariak eta autobus markesinak erosteko edo instalatzeko toki eremuko jarduketetarako, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa jarduketa mota bererako ezarritakoa izango da, udalerrikoa, udalerriartekoa edo udalerriz gaindikoa, hau da, ehuneko 50.

f) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluaren 3.14 apartatuan aipatzen diren estali gabeko pilotalekuak estaltzeko toki eremuko jarduketetarako, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa honako hau izango da: udal eremuan, udalerrien artean edo udalerriz gaindiko eremuan jarduketa mota bererako ezarritakoa, hau da, ehuneko 70.

g) Saltegiak sortzera bideratutako eraikinak eraikitzeko, handitzeko edo birgaitzeko jarduketak onargarritzat jotzen dira, bai toki eremuan, bai udal eremuan, udalerrien artean edo udalerriz gaindiko eremuan, jarduketa eskatzen den gunean merkataritza jarduerarik ez badago. Dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa 9/2017 Foru Arauaren 9. artikuluan ezarritakoa izango da, hau da, ehuneko 65.

4.4. Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inola ere ez dira hartuko diruz lagundu daitekeen gastutzat.

4.5. Aplikatutako gastu orokorrak eta industria etekinak ezin izango dira guztira ehuneko 19 baino gehiago izan.

4.6. Baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 142. artikuluaren babesean, administrazio klausula berezien agirian jasotzen bada behar bezala baloratutako aldaera eta hobekuntzen eskaintza aintzat hartzeko aukera, emateko dirulaguntza murriztu egingo da, enpresa adjudikaziodunaren aldaeren eta hobekuntzen balorazioak adjudikatutako obraren kostu osoarekiko duen ehuneko berean murriztu ere.

4.7. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundutako obren ordainsari teknikoak finantzatzeko eman beharreko laguntzak 9/2017 Foru Arauaren 10. artikuluan (“Ordainsari teknikoen dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa eta oinarria kalkulatzea”) ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**5. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

5.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi bakoitzean ezartzen dena izango da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

5.2. Kasuan kasuko deialdian zehaztuko da eskaerak nola aurkeztu behar diren.

5.3. Laguntza eskaera bakoitza dagozkion deialdietan zehazten den dokumentazioarekin aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, eskaerekin batera, 9/2017 Foru Arauaren 12. artikuluko (“Laguntzen deialdia eta eskaerak”) 3. apartatuan zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5.4. Nolanahi ere, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

5.5. Aurkeztutako eskaeretan akatsak badaude edo eskaerak osorik ez badaude, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak haiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteko errekerimendua egingo die erakunde interesdunei. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango dute, eta epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

**6. Hautaketa irizpideak**

6.1. 9/2017 Foru Arauaren 13. artikuluko (“Hautaketa-irizpideak”) 2. apartatuan jasotako hiru aldagaietako bakoitzari esleitu beharreko haztapena, hasierako aurrekontu-esleipena kuadrillen arabera banatzeko, kasuan kasuko deialdietan zehaztuko da.

6.2. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren laguntza jasoko duten obrak eta zerbitzuak hautatzeko (kuadrilla bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztu ondoren) 9/2017 Foru Arauaren 13. artikuluaren 3. apartatuan (“Hautaketa irizpideak”) jasotako lehenespen formula beteko da.

**7. Baztertzeko irizpideak**

Eskaerak baztergarriak izango dira honako egoera hauetan:

a) 9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluan (“Baztertutako obrak eta zerbitzuak”) jasotako baztertzeko arrazoiren bat dutenak.

b) 9/2017 Foru Arauan, oinarri arautzaile hauetan edo dagozkien deialdietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak.

c) Ekipamendu obra gisa kalifikatutako jarduketak direnean, baldin eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko bideragarritasun ekonomikoko planean egiaztatzen ez bada ekipamenduaren mantentze gastuek ez dutela defizitik eragingo toki erakundeen kontuetan.

d) Sektoreko legeren batek (errepideak, urak, etab.) eragindako jarduketak direnean, baldin eta organo eskudunak kontrako txostena eman badu, eta, horren ondorioz, ez bada halakorik egitea gomendatzen edo debekatzen bada.

e) Aldez aurreko obrak egin beharrak, lursailik ez egoteak edo bestelako inguruabarrek eskatutako jarduketa dagokion deialdiak hartzen duen aldian gauzatzea ezinezko egiten dutenean.

**8. Deialdiaren ebazpena eta jakinarazpena**

8.1. Laguntzak emateko prozedura 9/2017 Foru Arauaren 14. artikuluan (“Laguntzak onestea”) ezarritakoa izango da.

8.2. Ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten erakunde eskatzaileen zerrenda jasotzeaz gain, gainerako eskaerak ezetsi direla ere adierazi beharko da berariaz.

8.3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duen bezala jakinarazi behar zaie dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei.

8.4. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bat etorriz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean; hori guztia, 44. artikuluan jasotako aldez aurreko aukerako errekerimendua gorabehera.

**9. Organo eskudunak**

9.1. Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak izango du laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eskumena.

9.2. Ebazpen proposamena egiteko organo eskuduna kide anitzeko organo bat izango da, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrak eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzako titularrak osatuko dute. Organo horrek ordezko pertsonak izan ditzake, eta haien bidez bermatu ahal izango da emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea organoan, beharrezkoa izanez gero.

9.3. Deialdiak ebazteko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseilua izango da.

**10. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeen betebeharrak**

10.1. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura ematen diren laguntzen toki erakunde onuradunek 9/2017 Foru Arauaren 16. artikuluan (“Erakunde onuradunen betebeharrak”) ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

10.2. Era berean, honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza osorik aplikatu behar diote dirulaguntza ematea eragin zuen jarduerari.

b) Behartuta dago Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak; Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak; Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

c) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi behar dituzte.

d) 9/2017 Foru Arauan eta laguntza hauen oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte.

e) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan jarduera lagungarrirako ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

10.3. Arau orokor gisa, laguntzen onuradun diren toki erakundeek egingo dituzte obren lizitazioa eta adjudikazioa. Horretarako, aholkuak eman ahalko dizkiete Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren unitateek eta Arabako Foru Aldundiko beste batzuek, behar izanez gero.

Baldin eta, proiektatutako obraren barruan, hirugarrenen titulartasuneko edo eskumeneko leku edo instalazioetan jarduketaren bat egin behar bada, hirugarren horiek beren gain hartu ahal izango dute obra horiek kontratatzeko eta egiteko ardura. Aldez aurretik lankidetza hitzarmena sinatuko da, eta han jasoko dira, besteak beste, sinatzen duen alderdi bakoitzaren konpromisoak eta jarduketak behar bezala eta araudian ezarritakoa betez egikaritzeko behar diren beste alderdi guztiak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**11. Gauzatzeko epea**

Gauzatzeko epea kasuan kasuko deialdietan ezarriko da.

**12. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea**

12.1. Ordainketa izendunak egingo zaizkio erakunde onuradun bakoitzari.

12.2. Dirulaguntzaren zati bat edo dirulaguntza osoa ordainketa aurreratuen bidez ordainduko da. Horretarako, 9/2017 Foru Arauaren 18. artikuluko (“Behin betiko dirulaguntza finkatzea eta ordaintzea”) 3. eta 4.a) apartatuetan zerrendatutako dokumentazioa bidali beharko du erakundeak, bai eta kasuan kasuko deialdietan eskatzen dena ere.

12.3. 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluko 2.2.bis apartatuan jasotako desjabetze gastuak finantzatzeko eta artikulu bereko 3.6 eta 3.13 apartatuetan jasotako lursailen edo eraikinen erosketak finantzatzeko emandako dirulaguntzen kasuan, horretarako onetsitako erregulazioan horretarako ezarritako baldintzak bete ondoren egingo da ordainketa.

12.4. 9/2017 Foru Arauaren 18. artikuluaren 6. apartatuan ezarritakoaren babesean, kontratistari zuzenean ordaintzea erabakitzen bada, dirulaguntza konturako ordainketaz ordainduko da, entitate onuradunek behar bezala onetsitako obra ziurtagiriak eta fakturak aurkeztu ondoren, aurkeztutako ziurtagiri bakoitzari dagokion zenbatekoan.

12.5. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundutako obren ordainsari teknikoak finantzatzeko laguntzak eman eta ordainduko dira 9/2017 Foru Arauaren 18. artikuluaren (“Behin betiko dirulaguntza finkatu eta ordaintzea”) 3.d) apartatuan zerrendatutako dokumentazioa bidali ondoren, apartatu horretan ezarritakoaren arabera.

12.6. Laguntzaren erakunde onuradunek dirulaguntzaren xede den jarduketa amaitu ondoren egindako ordainketen justifikazioa bidali beharko dute, 9/2017 Foru Arauaren 18. artikuluko 5. apartatuan (“Behin betiko dirulaguntza finkatzea eta ordaintzea”) ezarritakoaren arabera.

**13. Unitateko prezioak eta moduluak eguneratzea**

9/2017 Foru Arauaren I. eranskinean adierazitako prezio unitateko prezioak, moduluak eta koefizienteak aplikatu beharko dira zoladura eta argiteria publikoko obretan diruz lagun daitekeen aurrekontua lortzeko, bai eta ekipamendu eta zerbitzuetako obretan diruz lagun daitekeen gehieneko aurrekontua lortzeko ere. Prezio horiek dagozkien deialdietan eguneratu ahal izango dira.

**14. Dirulaguntzaren aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

Emandako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabiderekin, 9/2017 Foru Arauaren 19. artikuluan (“Dirulaguntza bat baino gehiago jasotzea aldi berean”) ezarritakoaren arabera.

**15. Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea**

15.1. Honako hauetan jasotako kasuetan dirulaguntza itzuli beharko da: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

15.2. Era berean, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira 9/2017 Foru Arauaren 20. artikuluaren (“Dirulaguntzak itzultzea”) 1. apartatuan jasotako kasuan.

15.3. Onetsitako dirulaguntzaren gainean jasotako zenbatekoak itzultzea zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da, eta Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

15.4. Ordainketa aurreratuak egiteko bermeen araubidea 9/2017 Foru Arauaren 18. artikuluko ("Behin betiko dirulaguntza finkatzea eta ordaintzea") 4. apartatuan jasotako baldintzetan ezartzen da, bai eta dagozkien deialdietan ezar daitezkeenetan ere.

Erakunde onuradunek dirulaguntza ordaindu aurretik bidali beharko duten konpromisoan (18. artikuluaren 4. apartatuko a) epigrafean aipatzen da), kontratistari ordaintzeko gehieneko epea 20 egunekoa izango da.

15.5. Honako irizpide hauek ezartzen dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuak mailakatzeko:

a) Emandako dirulaguntzaren xede den jarduketa ez gauzatzea ezarritako epealdiaren barruan: emandako dirulaguntza osoa galduko da.

b) Modu partzialean eta epealdiaren barruan gauzatzea dirulaguntzaren xede den jarduketa: gauzatu gabeko zatiari dagokion dirulaguntza zatia galduko da, betiere egindako zatiaren bidez diruz lagundutako jarduketaren xedea bete bada. Bestela, emandako dirulaguntza osoa galduko da.

c) Ez bada erosketa justifikatzen edo ez bada 12. apartatuan ezartzen denaren arabera behar bezala justifikatzen, esleitu den eta justifikatu ez den dirulaguntza zatia galduko da.

**16. Egiaztapena**

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak deialdiak gauzatzeko egokitzat jotzen dituen ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

**17. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak ebatziko du.

**18. Errekurtsoak**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan aurkaratu ahal izango dira oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak.

**19. Aplikatu beharreko arautegia**

Oinarri hauetan xedatu ez den guztiari dagokionez, honako arau hauek aplikatuko dira: Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra; unean-unean indarrean dagoen aurrekontu antolamenduko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## II. ERANSKINA

### Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura norgehiagoka bidez laguntzak emateko 2026-2027ko deialdia

**1. Deialdiaren xedea**

1.1. Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko betekizunak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea, norgehiagoka bidez, 2026-2027 aldian, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura.

1.2. Deialdia arautzen duten oinarriak deialdi hau onesten duen Foru Dekretuaren lehenengo xedapenean onetsitakoak dira, eta haren I. eranskin gisa agertzen dira. Oinarri orokor horiek ALHAOn argitaratzen dira deialdi honekin batera.

1.3. Laguntza lerro honen kargura finantza daitezkeen gaiak lehenengo oinarriaren (“Xedea eta aplikazio eremua”) 1.2 apartatuan adierazitakoak dira, bertan ezarritakoaren arabera.

**2. Erakunde onuradunak**

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte “Erakunde onuradunak” izeneko hirugarren oinarrian adierazitako toki erakundeek.

**3. Dirulaguntzaren zuzkidura eta zenbatekoa**

3.1. Deialdiko dirulaguntzen programarako hasierako zuzkidura 39.975.610,00 euro izango da, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuan indarrean dagoen aurrekontu multzoaren “10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2026-27” partidaren kargura, 2026ko eta 2027ko urtekoen banakapen honekin:

— 19.936.805,00 euro 2026ko urtean.

— 20.036.805,00 euro 2027ko urtean.

3.2. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura eman beharreko laguntzak 9/2017 Foru Arauaren 11. artikuluan (“Laguntzaren zenbatekoa zehaztea”) eta 18. artikuluan (“Behin betiko dirulaguntza finkatzea eta ordaintzea”) ezarritakoaren arabera zehaztuko dira, bai eta laugarren oinarrian (“Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzaren zenbatekoa”) ezarritakoaren arabera ere.

3.3. Ordainsari teknikoak finantzatzeko laguntzak “10203. G/459100/76200110 Obra eta Zerbitzuen 2026-27 Foru Plana” aurrekontu partidan horretarako gorde diren 300.000,00 euroen (150.000,00 euro 2026 urtean eta 150.000,00 euro 2027 urtean) kargura emango dira, eta 9/2017 Foru Arauaren 10. artikuluan (“Ordainsari teknikoen dirulaguntzaren oinarriaren kalkulua eta gehieneko ehunekoa”) ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

**4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea**

4.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2025eko uztailaren 31ko 23:59an amaituko da.

4.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, eskaerak berariazko izapidearen bidez aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoan:

https://egoitza.araba.eus/es/-/plan-foral-de-obras-y-servicios.

https://egoitza.araba.eus/eu/-/obra-eta-zerbitzuen-foru-plana.

4.3. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, toki erakunde bakoitzak eskatu beharreko obrei eta zerbitzuei buruzko erabakia hartu beharko du, bere antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen arabera.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4.4. 9/2017 Foru Arauaren 12. artikuluaren 4. apartatuan ezarritakoaren arabera, gehienez eskaera bati erantzun ahal izango zaio 500 biztanletik beherako toki erakundeen kasuan, eta gehienez bi eskaerari biztanle kopuru hori edo handiagoa duten toki erakundeen kasuan. Horrez gain, beste eskaera bati ere erantzun ahal izango zaio, zuzenean herriguneak atxikita dituzten udalen kasuan, aipatutako apartatuan ezarritakoaren arabera.

4.5. Arau orokor gisa, eremu espezifiko batera mugatzen den obra bakarra osatzen duten jarduketen eskaerak baino ez dira onartuko. Ez dira onartuko herrigune desberdinetan edo gune beretik fisikoki bereizitako eremu desberdinetan kokatutako jarduketa independenteak barne hartzen dituzten eskaerak.

Salbuespen gisa, jarduketa independente bat baino gehiago barne hartzen dituzten eskaerak onartu ahal izango dira, baldin eta izaera berekoak badira (zolatzea, hornidura sareak, saneamendu sareak, argiteria publikoa, etab.).

Egindako eskaerek apartatu honetan ezarritakoa betetzen ez dutela ikusten bada, instrukzio organoak, ofizioz, aurkeztutako eskaera bereiziko du, bertan sartzen diren jarduketa independente guztietan. Ondoriozko eskaerak, ondorio guztietarako, eskaera independente gisa tratatuko dira.

**5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

5.1. Eskaerari honako agiriak erantsiko zaizkio:

a) Eskatutako jarduketaren proiektua, aurreproiektua, memoria balioetsia edo aurrekontua, egin beharreko obrak deskribatzen dituena, irismena ezagutzeko behar besteko xehetasun mailarekin, eta balorazio ekonomiko bat barne hartzen duena, diruz lagun daitekeen aurrekontua zehazteko behar besteko banakapenarekin.

Diruz lagun daitekeen aurrekontua unitateko prezioak edo moduluak aplikatuz zehaztu behar den obrei eragiten dieten eskaeren kasuan, dokumentu teknikoak erabilera edo obra mota bakoitzari dagozkion eraikitako azalerak, unitateak edo metro linealak zehaztu beharko ditu.

9/2017 Foru Arauaren 2.2 bis apartatuan aipatutako desjabetze gastuak jasotzen dituzten eskaeren kasuan, dokumentu teknikoak apartatu bat izan beharko du, non desjabetu beharreko lurzatien zerrenda jasoko baita, bakoitzaren katastro erreferentzia eta azalera adierazita, bai eta haien balorazioa ere desjabetzeari begira, eta lurzati horiek identifikatzen dituen plano bat ere.

b) Eskaerak izapidetzeko eskaera inprimakiaren inprimaki osagarriak, eskatutako obraren tipologiaren arabera:

• S1 inprimakia - Hirigintzako teknikari aholkulariaren txostena. Inprimaki hau eskatutako jarduera guztietarako aurkeztu beharko da.

• S2 inprimakia – Udal teknikari aholkulariaren txostena, guztira 35.000,00 euro baino gutxiagoko obretarako. Inprimaki hau 35.000,00 eurotik beherako gauzatze aurrekontua duten jarduketa guztietarako aurkeztu beharko da.

• S3 inprimakia - 15 urte baino gutxiagoko azpiegitura edo ekipamenduetan aurrezpena dakarten sistemak baloratzeko inprimaki-txostena. Inprimaki hau 15 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten azpiegiturei edo ekipamenduei buruzko jarduketa guztietarako aurkeztu beharko da, baldin eta toki erakundearen gastu arruntean aurrezpen handia eragiten duten sistemak txertatzea badute helburu.

9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluko d.1) apartatuan jasotako salbuespena aplikatzeko, zentzuzko inbertsiotzat hartuko da, S3 inprimakian agertzen den kalkulu formula aplikatu ondoren, emaitzak balio hauek edo handiagoak ematen dituenean:

— 0,33, ordeztu beharreko instalazioak edo elementu nagusiek 5 urte edo gutxiago dituztenean.

— “0,33 [(A-5) x2x0,01]” formula aplikatuta lortutako balioa, gehienez 15 urteko antzinatasunetarako, non A den ordezkatu beharreko instalazioaren edo elementu nagusien antzinatasunari dagokion urte kopurua.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

